

PROBA ESPEZIFIKOA

2017ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2017ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2017

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE
LA FILOSOFIA**

**Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri
Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du**

1. Adierazi zuzena ala okerra den. Arrazoitu eta argudiatu hautatutako erantzunak:

Pitagorasek honela esan zuen:

- Mundua kaotikoa da.
- Kosmosaren egitura matematikoa da.

2. Egin pasarte honen esanahiari buruzko iruzkin bat, Platonen biografiarekin duen erlazioa kontuan hartuta.

"Gizakiaren gaitzak ez dira amaituko, harik eta filosofo aratz eta benetakoen arraza boterera iristen den arte, edo hirietako (polis-etako) buruzagiak jainkoen grazia bereziari esker bereziki filosofatzen hasten diren arte" (VII. gutuna).

3. Adierazi ea zuzenak ala okerrak diren Aristotelesi buruzko baieztapen hauek, eta arrazoitu eta argudiatu hautatutako erantzunak:

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean ardazten du bere interesa.
- Esentziak mundu sentikorretik bereiz existi daitezke.

4. Azaldu nola ulertzen dituen San Agustinek arrazoimenaren eta fedearen arteko harremanak:

5. Azaldu Gilen Ockhamgoaren filosofiaren kontzeptu hauek:

- a) Nominalismoa
- b) Ekonomiaren printzipioa edo Ockhamgoaren labana

6. Adierazi ea proposizio hauek zuzenak ala okerrak diren, eta arrazoitu eta argudiatu hautatutako erantzunak:

- a) Descartes-ek arima-gorputz dualismora jotzen du giza askatasuna defendatzeko.
- b) Askatasuna indiferentzia hutsa da.

7. Azaldu "postulatu" terminoaren esanahia, eta zerrendatu Kant-ek aipatzen dituen arrazoimen praktikoaren oinarriko postulatuak.

8. Adierazi ea, pentsaera marxistaren ortodoxiatik, zuzenak ala okerrak diren baieztapen hauek:

- Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da.
- Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du.



EBAZPEN ORIENTAGARRIA (2017ko maiatza)

1.

- Ez da egia; mundua ez da zerbait kaotikoa. Mundua ordenatua da (kosmosa, ez kaosa):
munduak egitura harmonikoa du, musikak bezala, zeina proportzio harmonikoetara murriztu baitaiteke.
- Egia da: kosmosaren egitura edo forma matematikoa da. Galileok geroago esan zuen bezala:
“Unibertsoa matematikaren hizkuntzaz mintzatzen da”. Gauza guztiak zenbakien bidez adieraz daitezke.

2.

Hor dago Platonen proiektu filosofiko osoa. Haren filosofiak, beraz, xede politikoa du, nabarmen. Sirakusara egin zituen bidaien helburua bere erreforma-proiektuen bidez politikan esku hartzea zen. Filosofo gobernariaren ideala lortu nahi du; obsesio hori du, eta horregatik joan zen hirutan hiri horretara, gobernariaren boterea eta filosofoaren arrazoia elkartu nahian. Sirakusako tiranoak filosofiara konbertitzeko asmoak porrot egin zuen, eta Platonek ezin izan zuen bere ametsa errealitate bihurtu. Atenasko Akademia fundatzean Platonek zuen helburuetako bat egun batean gobernatzera iritsiko ziren filosofoak trebatzea zen. Hala, bokazio politikoa Platonen biografiaren ardatza da.

3.

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean ardatzen du bere interesa. **Okerra da.** Inguratzen gaituen mundu sentikor eta ukigarrian ditu begiak iltzatuak Aristotelesek: Rafaelen *Atenasko eskola* margolan famatuan, Platonek, hatzarekin, gorantz seinalatzen du; Aristotelesek, berriz, beherantz. Platonek mundu ideal abstraktuan ardatzen du bere interesa. Aristotelesek mundu konkretu eta sentikorrean finkatzen du begirada. Platonen filosofia ideietatik mundu sentikorrera zihoan, zeina mundu idealaren kopia akastun bat baita. Aristotelesek justu alderantziz dihardu: mundu konkretu eta sentikorretik abiatuta, abstraktura iristen da, ideietara.
- Esentziak mundu sentikorretik bereiz daitezke. **Okerra da.** Gorago adierazitakotik, ondorioztatzen da esentziak ezin direla existitu mundu sentikorretik bereiz. Aristotelesen ustez, gauza baten esentzia ezin da existitu gauza horretatik beretik bereiz.

4.

Ez dago alde nabarmenik arrazoimenaren eta fedearen artean: biek laguntzen dute egiaren bilaketan, eta ezin da oso bereizte argirik egin fedearen eta arrazoimenaren artean. Fedea da, jakina, gidaririk ziurrena: sinetsi egin behar da Jainkoak errebelatzen duena ulertzera iristeko. Baina arrazoimena, halaber, fedearen aurretik joan daiteke, ez



egia errebelatuak frogatzeko, baizik eta frogatuz arrazoizkoa dela sinestea. Arrazoimenaren eta fedearen arteko elkarrekiko lankidetzak horrek formulazio ospetsu bat du: "sinets ezazu, ulertzeko; uler ezazu, sinesteko". Fedea ez da arrazoimenaren etsai, eta ez dago bere buruaren gainean itxita: fedearen adimenaren bila dabil.

5.

a) Nominalismoa: latinezko "nomen" hitzetik, izena, terminoa. Unibertsalen gaia da; haren iritzia da unibertsalak ez direla ez kontzeptuak (kontzeptualismoa), ez objektuak (errealismoa), «izenak» baino ez direla, antzeko gauzen taldeei aplikatuak; Ockham-ek dio existitzen den oro singularra dela. Unibertsala ez da existitzen. Unibertsalak giza gogamenaren sorkariak dira, gauzen zeinuak dira, gauzak ordeztzen dituzten izenak.

b) Ekonomiaren printzipioa edo Ockhamgoaren labana: esperientziara jotzeak aukera ematen du behar ez diren kontzeptu abstraktuen erabilera aurrezteko: Adimen egilea, indibiduoazio-printzipioa, etab.) "Gauzak ez dira beharrik gabe ugaritu behar". Printzipio horren bidez, bistakoa ez den guztia ezabatzen saiatzen da Ockhamgoa. Hala, enpirikoki egiaztatu ezin diren kontzeptuak ezabatzen ditu filosofia aristoteliko-tomistatik.

6.

a) Descartes-ek arima-gorputz dualismora jotzen du giza askatasuna defendatzeko. Zuzena da. Gorputzaren eta arimaren arteko errotiko bereizketa (pentsamendua eta hedadura) askatasunaren gaia salbatzen saiatzen da. Askatasuna pentsamenduaren atributu bat da, eta pentsamenduak jarduera du baina hedaturarik ez; horregatik, ez dago fisikaren legeen mende, lege horiek gorputz fisikoetarako balio baitute baina ez baitote eragiten psikikoari, pentsamenduari. Pentsamendua eta askatasuna ez daude determinismo fisikoaren mende.

b) Askatasuna indiferentzia hutsa da. Ez da zuzena. Askatasuna ez da indiferentzia hutsa, askatasunaren kontzeptu pasiboa izango bailitzateke orduan. Aipatu da jadanik askatasuna pentsamenduaren atributu bat dela eta pentsamendua jarduera dela.

7.

Kant-ek matematikatik hartu zuen "postulatu" terminoa. Postulatuak bistakoak ez diren eta frogatu ezin diren proposizioak dira, eta onartu beharrekoak dira, zeren eta, bestela, ezinezkoa bailitzateke edozein baieztapen. Adibidez, Kant-en arabera askatasunaren existentzia ezin da frogatu, baina nahitaez onartu behar da "betebehar"aren beharkizun gisa, hori baita arrazoimen praktikoaren "a priori"zkoa. Modu sinpleagoan esanda: betebeharrak askatasunaren existentzia eskatzen edo postulatuak du. Esaten bada "ikasi egin behar duzu", esaten da aukera duzulako ikasteko edo ez ikasteko; hau da, aske zara. Errealitate horiek dira postulatuak; hau da, ez dira bistakoak eta ezin dira frogatu, baina onartu egin behar dira etikaren edo moralaren eskaera gisa. Kant-ek hiru bereizten ditu:

1. Askatasuna: "Eginbeharra duzu; beraz, aske zara". Eginbeharrak, azaldu berri den moduan, berekin dakar askatasunaren existentzia.



2. Arimaren hilezkortasuna: Borondateak, bere ekintza moralean, bizitza honetan ezin lor daitekeen xede bat du: beraz, baieztatu beharra dago badela beste bizitza bat non hori posible baita. Puntu horretara iritsita, arimaren hilezkortasuna postulatzeari beste biderik ez dago.

3. Munduan, izatea eta izan beharra ez dira identifikatzen: beharrezkoa da, beraz, onartzea Jainkoa dela bi errealitate horiek identifikatzen diren izakia.

Kant-ek, azkenik, arrazoimen praktikoaren bidez altxatzen du arrazoimen puruarekin eraitsi duen guztia. Unamunok, "Bizitzaren sentimendu tragikoa" obran, honela adierazi zuen: "Kant-ek buruarekin eraisten duena bihotzarekin altxatzen du". Teoriaren eta praktikaren arteko kontrakotasuna –zeinean, geroago, marxismoak sakonduko baitu– zabalik zegoen jada.

8.

- Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du. Ez da zuzena.
- Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreal da. Zuzena da.
- Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du. Zuzena da.



ONARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, azterketak zuzentzeko zenbait irizpide azalduko ditugu. Galdera bakoitzaren puntuazioa 2,5 da, hiru faktoreren arabera bananduta: orokortasuna (1,5), koherentzia (0,75), funtsa (0,25).

- Orokortasuna:** gaiaren egitura, orokortasun kontzeptuala eta historikoa –gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak– izango da zuzenketaren oinarrizko ildo; beraz, zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan erantzuna, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:
 - Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da kontuan hartuko (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuazioa metatuz joango da; gutxituz, sekula ez.
 - Sakontzea honela ulertu behar da: galdetzen den filosofiaren eta/edo garaiaren ideia zentraletara pixkanaka hurbiltzea.
 - Zabaltzea, honela: ideia eta/edo inguruabar historiko gehiago aipatzea.
- Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikaz ageri dira ordenatuta lehentasun baten arabera –epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...– Nolanahi ere, erantzuna ibilbide ulergarri baten bidez garatzen da.
- Sendotasuna:** testuan kontraesanik ez egotea –zerbait baieztatzea eta, gero, haren kontrakoa edo gaiarekin zerikusirik ez duena esatea; filosofiak ez nahastea, ez eta garai historikoak ere, eta abar–.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA EZAGUTZA-ADIERAZLEAK

Galdera	Ezagutza-adierazlea
1.	1.4
2	2.5
3	3.2
4	4.4
5	5.8
6	6.7
7	7.7
8	8.5